

AITZEKIARIK EZ AURRERAKOAN

1900-ean aitzekia ba zegoen: euskal liburuak hurri, euskerari buruzko azterketak bakan, euskalki guziak ongi ezagutzeko eta alderatzeko eragozpenak ugari. Euskal idazleek beren etxeko hizkera ezagutzen zuten, eta ez besterik. Euskalkiak ezagutzen ziran (nork berea onenean!), baiñan ez euskera. Jatorkeriaren aroa zan. Bizkaitarrek Bizkaia ezagutzen zuten, sunbildarrek Sunbilla, eta «atxabaltarrek» Aretxabaleta.

Gaur, ordea, 1968-an, zenbait aldetatik euskeraren arloa idazleentzako zaillago jarri baldin bada ere, euskaldun idazleok ez dugu aitzekiarik euskeraz 1900-ean baiño hobeto ez idazteko, eta geure txoko euskalki-motan gelditzeko. Euskal Herria ikusi behar dugu osoan, eta ez gure hauzoa soilik.

Eman dezagun Fisika-gai bat. 1900-ean ezagunak ez ziran fenomenoak edo legeak, 1968-an ezagunak dira. «Ezagunak dira»: alegia, gizadiak ezagutu ditu fisikariaren bidez. «Plasma»-ri buruz, esate baterako, ezer ez genekien urizonk, gizadiak alegia, 1900-eko urtean; baiña gaur liburu osoak daude «plasma» dala-koei buruz.

Gaur, beraz, 1968-an, «plasma» horietaz ezer ez dakiena, ez da fisikari bat, ez du eskubiderik Fisikaren arazoak zuzentzeko, edo Fi-

sika-irakastaulki bat eramateko. «Plasma» ez ezagutzeko aitzekiarik ez du: ikastea dauka, eta kitto. Ez lloke iñork bere ez-jakintasuna bar-katuko.

Gauza bera gertatzen da euskerari buruz.

Gure arteko batzuk gure hizkuntzaz ezer gutxi jakiteak, ez du egoera aldatzen. Ikastea ba daukate, berrek ez dakiten gauza horiek ezagunak baitira. Alegia: ikasi egin ditezke, «plasma»-ren gorabeherak bezelaxe.

Hizkuntzari gogozkiolarik, esate baterako, seriotasuna duen euskaltzaleak 1900-ean ez zituen ikaspi-deak ditu gaur. Euskeraren batasunari buruz, esate baterako, nahinainbat tresna dugu gaur ia-ia.

Ba dugu, alde batetik, «Euskera» aldizkarian 'Euskaltzaindia'k argitara

dituen izkribuak, ez behar ezagunak nik uste. Ba ditugu, gu guzian zai, Azkue'ren, Altube'ren, Laffitte'ren, Mitxelena'ren eta beste anitzen lan bikaiñak.

Euskeria herrikoari dagokionez, ba ditugu gaur bertsolarien bildumak, «Auspoa» sortak ezagutaraziak, alde askotatik egiazko harrobi aberats. Ba dugu, bestetik, idazle zahar asko ikasteko modurik: Kardaberatz, Iturriaga, Mogel, Mendiburu, eta abar. Ba dugu, oso bereziki, Atsular'en «Gero»-a irakurtzeko eta aztertzeko era, lan eder batzuk agertu berriak baitira: oraindik gure urdazubitarra ziñez irakurri eta aztertu ez duena, erruduna da osoki. 1900-ean ez, gaur bai. Oñiarria ba dugu ta.

Hitz batez: ez dago eskubiderik; ez dago eskubiderik, ez, aitzekiarik ez dagoelako, euskerari buruz argi-

tara diran lan ugari eta sakon horiek oraindik euskaldun intelektualek ez ezagutzeko. Areago: lotsagarria da! Noski: errazago da hitz hanpurusak era biltzea, eta moden eskuetan jartzea: haizeak nora, zapiak hara. Zapiak ote gera, ordea, euskaltzaleok?

Midikuntzari buruz horrela jokatu lukean sendagillea (alegia: 1900 ezkerotik agertu diran izkribuelarmonik egin gabe) petrikillotzat joko luteke denek. Eta egoki jo!

Euskeraren petrikilloen izurrirtea bukaratzeko garaia da. Gure hizkuntza bere zarpailtasunetik jasotzeko, ikasi egin behar da; eta gaur, behar-bada lenengo aldiz gure kondairan, gure hizkuntza sakonki ikasteko aukera ba dugu.

Ez dugu, beraz, estakururik.

LARRESARO



Errialdeak

Azken urte auetan gure mundua amaika aldatetaren testigu izan da noski. Dana aldatzen doa, teknika, lantegiak, pentsakerak, erriak, personak. Aldakuntza biziaren sorkari, biziaren ezaugarri. Gungo munduak, gure Europa zaharrak molde berriak bear ditu, aldatuz izan ezik, gure historiaren azken kanpaiak jotzen ari gerala uste det.

Errialde bakoitzaren arnasa kultura dala esan oi da, izan ere kulturak (kultura ta jakintza ez dira berdin) osoagutzen gaitu, len aipatu degun aldakuntz eta aurrerapenaren ardatza degu. Ontaz gu baiño lenago jabetu diranak badira.

Errialde bakoitzaren etorkizuna politika ta ekonomi aldetik ondo oiñarritu bear dan zerbitat da. Nik gure estaduko errialdeei ekonomiekiko egoerari buruz ikustalditxo labur bat besterik ez det egingo.

Gure geografia oso ezberdiña da, lurraldeak ere oso diferentek, giroa berriz zer esanik ez. Derrigorrean ekonomia ere bide berexia artu bear du. Lurralde bakoitzari dagokion eran planteatu eta indartu bear dan ekonomia izan bear du. Baiñan zer da gaur egunean gertatzen dana?

Galiziak, adibidez, azken urte auetan prolema gorriak dauka. Bere errenta oso bala dago, bertatik askotxo dira kanporatu bearrean arkitu izan diranak, industriak indar pikat artua izanagatik, gañontzeko erriak, errialde osoa beeko maillan dakusgu. Desarrollo edo deritzan plan onekin zenbait lantegi berri sortu dira, baiñan etorkizunari buruz, euren gaitza sentzeko modukoa izango danik iñork ez du espero.

Industriak aurrez, Galizia lurra ta giroa kontuan izanik, nekazaritza ta ganadutza obeagotzea eskatzen du. Bertako nekazarierri erretasuna emanik ekonomia sendo oiñarritu ahal izango dute. Gañontzean ondartzan egingdako etxearen antzekoa izango da.

Asturias ere korapillo berezia eskatu bearrean dago. Ikaskintza ankap gora dioja, bertako burnigintza ere oso geldo zegoan, Ensidesa fabrika bertan jarri zuten arte. Lantegi berri onek, asturtarrei on aundirik egin dienik aitortzera ez naiz ausartzen. Izan ere, Aviles deritzaion erria amabost urte auetan len alako iru biurtu da, eta ortarako gertu gabea zegoen Orregatik prolema ugari eta garratzak dira, inmigrazioak berekin dituan ondorenak.

Valenzian, adibidez, nekazaritzari eutsi die, ortarako egin dituzten erreka angu lurra asko aberastu dute. Valenziarra, bere lurrari oso itsatsia dago, zañak lurralde artan sartuak ditu, kanporatzea etaio batere gogozkoa. Nekazaritzak industri parraipen bat eskatzen du, eta alderdi au baztertua egon izan da. Ango lantegiak, geientsuenak beintzat, oso txikiak dira, automatizazio gutxioko etorkizunik gabeak.

Andaluzi eta Gaztelako nekazariak nolatsu bizi diran badakizute, zorigaitzoko kanporatu bearrak zenbateranoak izan dan gure lurralde ontan bertan ikus genezake. Ez die turismo egarriak ortara bultza, ogipide baten bearreak baiño.

Errialde bakoitzak bere etorkizuna zaindu bear du, bere ekonomia sendotu eta obeagotu, ortarako kapital batzuen jabe izan dedin errialdearen onerako joka dezaten aurrezki kutxak edo antolatu bear lirake. Zenbait erri, orain pobreak izanik, euren ondasunen jabe izan ezkeri beste kuku-

rruku batek joko luke. Izan ere, bertan aurreratzen diranakin, eta kanpoan arkitzen diran oiek bidaldutako dirutzekin bertan inbertituz, erri bezela euren promozioa arkituko lutekela duarik ez dago.

Bearbada, askotxo izango dira, errialdeak indartuz gure buruaren aurka joaten izango litzakela, esaten dutenak Cataluña ta Euskalerrriak euren maila besteen bizkar lortu dutela, oraingo egoerak bi lurralde auen onerako izan dalata. Zoritxarrez, iritzi au geiegi zabaldua izan da:


Cataluña dagokionez, bere industria Irten biderik gabe arkitzen da, ta erri bezela bere arazoak antolatzeke bear ainbat dirurik gabe. Euskalerrria beerriz...

Gure Gipuzkoan adibidez, baserriak askoz geiago meioratu bear dira, bere baso ta belardierri etaia bear bezelako etekifik ateratzen. Basarri asko ustutzen dijoaz, baserria gazteak gertuko diran eskolak gutxiagatik dira, eta askotan gure nekazariak aurreratutako xoxak baserria bost ajola zalen jendearen eskuetan egon oi dira.

Industriari begiratuaz berriz, gure lantegiak erabat berritu bearrean daude, Europako atek zabaltzeko bildurpean gaude. Gure arteko zenbait erri jendez gañezka jarri zaizkigu, eta gure diru iturriak lengoak dira, orain dala urte askotakoak. Bilbao, Barakaldo, Sestao, Eibar, Zumarraga, Erren-deri... Amaika buruaste ta kezak beterik daduzkagun erriak. Estadistikaetan aurrenengo zerrendan egonagatik, zuloz betetako ontziaren antzekoak gera, bear ainbat edaririk gordetzeko almenik ez degu izanen.

Arren, gure errialdeak euren bizibidea izan dezatela, kultura, politika ta ekonomi aldetik bide zabalagoak onurakorrek izango zaizkigu ta.

MIKEL UGALDE



Asteazkenero, gabeko amaiketan, SER katearen bidez eta beste España'ko irratsaio batzuen bitartez

Coca Cola'k eskeintzen dizuen irrati-aldia